

# Eltzea berotu ala hoztu, horra hautua

**GREGORIO** Ordoñezen hilketak —hautetsi bat, horra jauzi koalitatiboa, beste jauzi posible batzuen iragarpen beldurgarria— lurrikara eragin zuela esan bazen, ondorio diren pitzadura sakonak laster ikusi dira, gizarte osoan eta indar politikoetan. HB eta KASeko kideei heriotz honetan gutxienik konplize papera, sarritan eragile izatekoa eta zenbaiten ahotan antolatzailearena ere eman zaie. «Normalak» dira aspal-dion holakoak, edozein tertuliatan HBko botoemaileei putasemeak, faxistak edo naziak deitzea bezala. Txanponaren beste aldean, ezker abertzalea kupidarik gabe erasotzen zuen Ordoñezen hilketaren aurrean formalki ere dolurik ez zuen agertu HBko mahai nazionalak. Blokeoa noraino iritsi den, edo gatazka bere eskaladan nola dagoen gogortua.

Milaka lagun manifestatu ziren urtarilaren 28an, larunbatez, Gesto Por la Paz elkartearen deia irantzunez. Urtero Ghandiren oroimenean egiten den manifestaldia, aurtengoan aspaldiko handiena izan zen, Gregorio Ordoñezen heriotzak markaturik. Antolatzaileez gain HB ez beste alderdi politiko guztien eta erakundeen babesarekin, ETAr armak uzteko eskatu zion manifestaldi erraldoi honek. (Arg: Xouse Simal).

Eskalada horretan ETak —uste de-  
nez— egin duen jauzia kritikatu du HBko zenbait hautetsik, baldintza hauetan eta indar erlazioa ikusirik jauzi hori jasangaitza dela uste dutelako nagusiki, «errore politikoa». Laster ikusiko da ahots horien atzean nor eta zenbat dagoen HBn. Ea Floren Aoizek aurpegiratu dienez mugimendu barruan esan beharrekoak kanpora atera dituzten militante desleialak diren, ala horien deklarazioak barruan bideratu ezinik zegoen ezinegonen baten emaitza ziren.

**OLDARTZEN** txosten nagusiaren inguruan HBn burutzen den barne eztabaidaren erdian egokitu da Ordoñezena. Atentatu horrek eta ondoko asteko tifoia HBn aurrera begirako estrategiaz eta datozen hauteskundeen aurreko jokamoldeaz zabalik zegoen barne eztabaidari dimentsio berezi bat erantsi die. Hori gutxi balitz, prentsarekiko jokabideaz KASen eztabaidatutako barne paperak nahasi ditu gehiago ur arreak. Kazetari eta komunikabideen kontrako ekintzak aipatzen ziren lerro horietan, eta Blokeak bere agirian ez ditu garbi gezurtatu.

**■ Ondorioek mindu dituzten alde guztietako politikariek, eltzeari presioa kentzeko ahalegin berezi bat zor diote Herri honi. Zergatik ez lehen keinua Ajuria**

